

ISEI - IVEI

**E2.2.2. CURRICULUM KONPETENTZIA DBHko 2.
MAILAN: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-
KOMUNIKAZIOA.**





IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA
BASQUE INSTITUTE FOR RESEARCH AND EVALUATION IN EDUCATION

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA BAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Edizioa: 2021eko otsaila
© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.hezkuntza.net



E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Aurkibidea

GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019. 4

E2.2.2.1 taula eta grafikoak:..... 6

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia* lortutako puntuazioen bilakaera, *Irakurmena*, *Entzumena* eta *Idazmena*, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera. 6

E2.2.2.2 taula eta grafikoak:..... 7

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera..... 7

E2.2.2.3 taula eta grafikoak:..... 8

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia* geruzaren (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna). 8

E2.2.2.4 taula:..... 9

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 9

E2.2.2.4 grafikoa:..... 10

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea. 10



E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO (DBH) 2. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019¹.

Adierazle honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019ko Ebaluazio Diagnostikoetan Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) lortutakoak dira, 250 puntuko batez bestekoa, 50 puntuko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu maila dituen eskala batean.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: ikasleen sexua, geruzak (hizkuntza-ereduak² eta ikastetxearen titulartasuna³), indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmilarekiko adin-egokitasuna (jaioturtea eta egiten ari den irakasmila), aitaren eta amaren ikasketen maila gorena, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

Batez besteko puntuazioak, guztira, igo egin ziren 2013tik (253) 2017ra (254), baina berriro jaitsi ziren 2019ko Ebaluazio Diagnostikoan (251). Neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte Ebaluazio Diagnostiko guztietan; nesken aldeko aldea 3 puntutik (2013an) 9 puntu (2017an) bitartekoa izan ziren; 2019an sexuari dagokion aldea 6 puntukoa izan zen.

Hiru dimentsioei dagokienez, *Idatzizko ulermena*, *Ahozko ulermena* eta *Idatzizko adierazpena*, zazpi ebaluazioetan, 2009 eta 2017 artean hobekuntza bat egon zen *Idatzizko ulermenaren* batez besteko puntuazioan (256), eta berriz ere okerrera egin zuen 2019an (251). *Ahozko ulermenak* bilakaera positiboa izan zuen 2011. urtera arte (258), urte horretatik aurrera puntuazioek behera egin baitzuten 2019an (251). *Idatzizko adierazpenean*, puntuazioa beti da 250, proba urtero aldatzen delako eta ezin delako konparatu. Puntuaziorik altuena *Ahozko ulermenean* (258) ikusi da 2011n. Neskek mutilek baino puntuazio hobeak lortu dituzte *Idatzizko ulermenari* dagokionez (2009an, 13 puntu gehiago; 2010, 2011, 2013 eta 2015ean, mutilek baino 6 puntu gehiago; eta 2017an eta 2019an, mutilek baino 7 eta 8 puntu gehiago, hurrenez hurren) eta *Idatzizko adierazpenari* dagokionez (2019an eta 2017an, 22 puntu gehiago; 2015ean, 21 puntu gehiago; 2010ean eta 2013an, 19 puntu gehiago; eta 2011n, neskek mutilek baino 14 puntu gehiago). Aldiz, *Ahozko ulermenari* dagokionez, mutilek neskek baino puntuazio handiagoa lortu dute 2009an (3 puntu) eta 2013an (puntu 1), nesken puntuazio berdina 2011n (258) eta txikiagoa 2015ean (5 puntu), 2017an (11 puntu) eta 2019an (3 puntu).

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziaren errendimendu-maila ertain eta aurreratuan dauden ikasleen ehunekoaren bilakaera, 2015tik (% 86,7) 2019ra (% 85,1), 1,6 puntu jaitsi da. Maila ertain eta aurreratu handieneko ikasleen ehunekoa 2011koa izan zen (% 88,1). Hasierako mailan, zazpi urte bitarteko mutilen batez besteko ehunekoa 3,4 puntu handiagoa da neskena baino. Aldiz, bai maila ertainean bai maila aurreratuan, nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa da, nahiz eta aldeak txikiak izan, 0,6 puntu inguru maila ertainean eta 2,9 puntu inguru maila aurreratuan.

¹ Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019. Txosten orokorra. <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

² EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

³ EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.



E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko geruza desberdinetako batez besteko puntuazioen bilakaerak, zazpi urteetan, puntuazio altuenak erakusten ditu itundutako A eta B ereduetan, eta, ondoren, itundutako D eta D eredu publikoetan. Batez besteko puntuaziorik altuena 2017an eman da A eredu itunduan (269) eta baxuena A eredu publikoan (214) 2009an. 2009tik 2015era bilakaera positiboa izan zen maila guztietan, B eredu publikoan izan ezik, 6 puntu jaitsi baitzen. 2015etik 2017ra igo egin ziren D ereduko puntuazioak, publikoak zein itunpekoak. Azkenik, 2017tik 2019ra bitartean, puntuazioek behera egin dute geruza guztietan.

2019an, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* erdiko mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen profila honako hau da: ISEK maila altua duena (% 90,7), bere gurasoek goi mailako ikasketak dituztenak (% 90,2), irakasmilarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 88,8), eta Euskadin jaio dena (% 86,2). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehunekorik txikiena duten ikasleen profila gurasoek derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituzten ikasleena (% 64,6), irakasmila errepikatu duten ikasleena (% 66,0), ikasle atzerritarrena (% 77,9) eta ISEK maila baxua (% 79,0) dutenena da.





E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

E2.2.2.1 taula eta grafikoak:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* lortutako puntuazioen bilakaera, *Irakurmena*, *Entzumena* eta *Idazmena*⁴, dimentsioetan, guztira eta sexuaren arabera.

		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
Guztira	Guztira	250	252	254	253	253	254	251
	Neskak	253	254	256	254	256	259	254
	Mutilak	247	250	253	251	251	250	248
<i>Irakurmena</i>	Guztira	250	252	252	251	252	256	251
	Neskak	257	255	255	254	255	259	255
	Mutilak	244	249	249	248	249	252	247
<i>Entzumena</i>	Guztira	250	252	258	256	256	253	251
	Neskak	248	253	258	256	258	258	252
	Mutilak	252	252	258	257	253	247	249
<i>Idazmena</i>	Guztira	250	250	250	250	250	250	250
	Neskak	258	260	257	260	261	261	261
	Mutilak	243	240	243	241	240	239	239



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.

⁴ *Idazmena* proba urtero aldatzen denez, batez besteko puntuazioa 250 da beti.



E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.2.2 taula eta grafikoak:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzian* hiru errendimendu-mailetakoko bakoitzean, guztira eta sexuaren arabera.

	HASIERA			ERDIA			AURRERATUA		
	Errendimendu maila			Errendimendu maila			Errendimendu maila		
	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak	Guztira	Neskak	Mutilak
2009	16,0	13,4	18,3	54,7	55,7	53,8	29,3	30,8	27,9
2010	12,1	10,6	13,5	59,4	59,9	58,9	28,5	29,5	27,6
2011	11,9	10,3	13,5	58,6	59,3	57,9	29,5	30,4	28,7
2013	14,9	13,7	16,0	55,7	56,6	54,9	29,4	29,7	29,0
2015	13,3	11,6	14,9	57,6	57,7	57,5	29,1	30,7	27,6
2017	13,2	11,1	15,3	56,6	55,5	57,7	30,1	33,4	27,0
2019	14,9	12,9	16,7	60,6	60,7	60,5	24,6	26,4	22,8



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.



HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.2.3 taula eta grafikoak:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzia* geruzaren arabera (hizkuntz-ereduak eta ikastetxearen titulartasuna).

	2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019
A Publikoa	214	223	220	227	221	215	218
B Publikoa	243	243	246	234	237	236	232
D Publikoa	247	249	250	250	249	251	248
A Itunpekoa	256	258	264	260	258	269	262
B Itunpekoa	258	260	262	259	263	259	256
D Itunpekoa	251	255	257	255	256	258	253



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.2

Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.2.4 taula:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

		Ikasle %							Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
		2009	2010	2011	2013	2015	2017	2019	2019		
ISEK	Maila baxua ²	17,8	19,0	18,1	15,6	20,0	24,2	20,3	21,0	60,6	18,3
	Maila ertain baxua ²	22,5	21,5	22,0	25,1	24,4	25,1	25,3	16,8	61,1	22,1
	Maila ertain altua ²	27,8	28,5	28,6	27,3	28,2	25,2	25,9	14,3	61,4	24,3
	Maila altua ²	31,8	31,0	31,2	32,0	27,3	25,5	28,5	9,3	59,3	31,4
Egokitasuna	Ikasmaila egokia	80,5	79,9	81,4	81,8	81,3	84,2	84,1	11,2	61,0	27,8
	Ikasmaila EZ egokia	19,5	20,1	18,6	18,2	18,7	15,8	15,9	34,0	58,6	7,4
Titulartasuna	Publikoa	44,0	45,3	45,3	44,2	46,6	45,5	53,4	17,3	60,9	21,8
	Itunpekoa	56,0	54,7	54,7	55,8	53,4	54,5	46,6	12,7	60,3	27,0
Gurasoen ikasketa mailarik altuena	Derrig. Ikask. bukatu gabe	3,1	3,0	3,4	3,1	2,9	2,5	2,5	35,4	57,6	7,0
	Derrigorrezko ikasketak	16,7	15,7	17,7	15,5	15,4	13,5	12,9	26,4	62,4	11,2
	Batxilergoa, HZ	31,9	32,6	36,3	34,1	36,0	35,0	33,6	15,2	64,1	20,6
	Goi mailako ikasketak	41,7	41,5	42,6	47,3	45,8	49,1	51,1	9,8	58,1	32,1
Jaioterria	Autoktonoa	93,2	92,6	92,3	93,1	92,3	92,3	91,0	13,8	60,4	25,8
	Atzeritarra	6,8	7,4	7,7	6,9	7,7	7,7	9,0	22,1	62,6	15,4
Familia-hizkuntza*	Euskara	15,0	19,7	19,9	21,8	21,1	18,7	18,2	14,4	61,3	24,4
	Euskara EZ dena	82,6	76,3	80,1	74,8	78,9	81,3	81,8	14,5	60,5	25,0

*2009 eta 2010. urteetan, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2009, 2010, 2011, 2013, 2015, 2017 eta 2019.



E2.2.2


Curriculum kompetentzia DBHko 2. mailan: Gaztelania.

HEZKUNTZAKO
ADIERAZLEEN
EUSKAL SISTEMA



E2.2.2.4 grafikoa:

Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasleen ehunekoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: ikasleen indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmalarekiko, ikastetxearen titulartasuna, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza. 2019. urtea.



Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2019.